



Esp.kodea: 2021HORD0001

Gaia: UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.
Hasiera eguna: 2021/05/31

ALKATETZAREN ERABAKIA
N21/00945

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe

ERABAKI DUT:

.- Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordearen ondoko diktamena onartzea:

“UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA: AGIRIA IDATZI AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA.

Udalari ordenantza arautzaileak onartzeko ahala ematen dio 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1 artikulua.

39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkiderenak, VI. Tituluan legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahalaren erregulazioa jaso du. Besteak beste ezarri du 129 artikuluan ahal hori erabiltzerakoan erregulazio onaren printzipioa bete beharko dela, hau da, printzipio hauek bete beharko dituela: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Horrez gain, herritarren partehartzea indartzeko kontsulta publiko bat egiteko betebeharra ezarri du 133.1 artikuluan. Izapide hori ordenantza proiektua idatzi aurretik egin beharko da eta datza bideratzean udal webgunearen bitartez etorkizuneko arauak eragingo dien subjektuen eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasotzean ondoko puntu hauen gainean:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- Arauaren helburua.
- izan litezkeen bestelako aukera erregulatuzaile eta ez-erregulatuzaileak.

Arrasateko Udalak espazio publikoetan mahai-aulkiak jartzeko lizentziak eman dizkie ostalaritza-establezimenduci, horiek ematea egokia eta komenigarria den baloratu ondoren eta, nolana ere, erabilera pribatiboaren eta erabilera orokorraren arteko bateragarritasuna kontrolatu batez ere kontutan harturik eremu horretan zein den okupazio horren eragina.

COVID-19k sortu duen egoera dela eta, ostalaritza-establezimenduek aurkeztutako bide publikoa okupatzeko eskaerak ugaritu egin dira.

Kodea	N21/00945	Entitatea	ARRASATE/MONDRAGON	
CUDO	000.0055.AAAAMQA4.H.y8Xf			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMQA4H.y8Xf			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021HORD0001

Gaia: UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.
Hasiera eguna: 2021/05/31

Horiek kontuan izanda, egokia da une honetan bide publikoa terrazekin (mahai-aulkiekin) eta beste instalazio batzuekin okupatzea arautuko duen ordenantza erregulatzailerik onartu ahal izateko prozedurari ekitea.

Eranskinean jasotzen da ordenantza berri honi dagokionean aipatutako 133.1 artikulua jasotzen dituen puntuen gaineko taula.

Beraz, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak hauxe proposatu du:

I.- Prozedura hastea onartu dadin Udal Ordenantza Arautzailea, bide publikoa terrazekin (mahai-aulkiekin) eta beste instalazio batzuekin okupatzearen gainekoa.

II.- 39/2015 Legeak 133.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, dagokion kontsulta publikoa egitea.

III.- Udal Zerbitzu Teknikoen kargu uztea, behin kontsulta publikoa egindakoan, ordenantza arautzaile proiektua prestatzea.”

ALKATEA,

Kodea	N21/00945	Entitatea	ARRASATE/MONDRAGON	
CUDO	000.0055.AAAAMQA4.H.y8Xf			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMQA4H.y8Xf			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				